



Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2020/16

DIRULAGUNTZAK BANAKAKO EBALUAZIO-ARAU BIDEAN EMATEKO DEIALDIA,
ESTABLEZIMENDU SEGURUAK SUSTATZE ALDERA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismoko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Merkataritza eta Turismoko Zuzendaritza
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da establezimenduei dirulaguntzak emateko prozesua arautzea, bitartekoak eduki ditzaten COVID-19az geroztik establezimenduetako segurtasun- eta garbiketa-neurriak areagotzeko, eta, horrela, lokalak seguruak izan daitezen laguntze aldera. COVID-19ak eragindako krisiaren ostean, bezeroek irisgarri eta segurutzat hautematen dituzten espazioetara joko dute erosketak egin eta kontsumitzera (dendak, tabernak, jatetxeak, aisiarako eta zerbitzu pertsonaletarako establezimenduak).

Beharrezkoa da irisgarritasunaren kontzeptu berri bat definitzea jendeari arreta ematen dioten establezimenduei dagokienez. Oztopo fisiko eta sentzorialak kentzeaz gain, lokalek irisgarriak izan behar dute osasun-segurtasunaz bezainbatean ere. Saltokien zein jendeari arreta ematen dioten guneen antolamenduan eta mantenimenduan aldaketak egin behar dira, kutsatze-arriskua ahal beste gutxitzeko eta erosteko ohitura zein gizarte-portaera berrietara egokitzeko.

Horrek guztiak gastu handiagoak dakarzkie sektore horietako enpresariei, noiz eta negozioek zailtasunak dituzten garai batean. Gastu arruntak egin beharko dituzte, hala nola garbiketa-produktuetan eta langile zein bezeroendako babes-materialetan, bai eta neurri ezberdineko inbertsioak ere, lokal bakoitzaren ezaugarrien eta jarduera-sektorearen arabera, espazioak eta jendeari arreta emateko moduak berrantolatzeak.

Hori horrela, deialdi honen helburua da diruz laguntzea lokalak irisgarritasun-behar berrietara egokitze aldera babes pertsonaleko eta garbiketako material, produktu eta ekipamenduetan 2020ko otsailaren 1etik urriaren 15era arte, biak barne, egindako gastuak.

2. Deialdiaren helburua:



Halako aldaketek dakarten zama ekonomikoa arintzen lagundu nahi da, eta ekarpena egin saltokiak eta lokalak seguruak izan daitezen, sektore horietako langileak zein bezeroak babestuz, jomugan harturik jarduera ekonomikoaren normaltasuna ahalik eta lastarren berreskuratzea, eta ahal den neurrian gelditzea salmentetan eta enpleguan izandako galera, hiriaren tokiko aberastasunari ekarpen handia egiten dioten sektore hauetan.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Honako kontzeptu hauek ahalko dira diruz lagundu:

Babes pertsonalerako material eta produktuetan egindako gastuak: erabili eta botatzeko maskarak eta maskara berrerabilgarriak, gel hidroalkoholikoak, xaboiak, banagailuak eta norberaren desinfekzioarako beste soluzio batzuk, eskularruak, aurpegia babesteko pantailak eta norberaren babeserako beste elementu batzuk (NBEak), establezimenduetako langileei zein bezeroei emandakoak.

Testak egiteko eta langileen osasun-prebentzioarako beste neurrietan egindako gastuak: langileei testak eta proba diagnostikoak egiteko zerbitzuak, termometroak eta establezimenduko langileen osasun-babesari lotutako beste gastu batzuk.

Lokalean bezeroak babesteko jarritako babes-elementuetan egindako gastuak: hala nola manparak, erakusmahaiak, katenariak eta establezimenduan pertsonen arteko distantzia errazteko seinaleztapen-materialak jartzeak eragindakoak. Kontaktua murrizteko, sarbideak aldatzeak eragindakoak: heldulekuak aldatzea, atea irekitzeko sistema automatikoak, sarbideetako tenperatura-kontrolak, gel eta bestelako babes-materialetarako banagailuak jartzea, eskaerak hartzeko guneak aldatzea, eta urrutiko salmenta erraztu eta hortaz, establezimenduan kontaktu fisikoa murrizten duen askotariko ekipamendu elektroniko edo informatikoa.

Ohiz kanpoko garbiketa-gastuak: garbiketa- eta desinfekzio-zerbitzu bereziak, garbiketa- eta desinfekzio-produktuetan egindako gastua, establezimendua garbitu eta desinfektatzeko makinak zein etxetresna elektriko txikien alokairua edo erosketa.

Kalitatea Kontrolatzeko, Protokoloak Abiatzeko edo antzeko Sistemetan egindako gastua: edukiera-kontrolak egiteko laguntza teknikoko gastuak; praktika onak, arauak eta kalitate- zein segurtasun-protokoloak abiatzeko laguntza teknikoko zein prestakuntzako gastuak, eta gune eta lokal seguruak sustatzearekin zuzenean lotutako zigilu, egiaztagiri eta antzekoak.

Ekipamendu informatiko edo elektronikoei, etxetresna elektriko txikiei, altzariei eta bestelako elementu ez kontsumigarriei dagokienez, gastua onartuko da baldin eta elementuaren kostu unitarioa 1.500 €-tik beherakoa bada (zergak kanpo).

Gastuek ezarritako epearen barruan egindakoak izan beharko dute, hots, 2020ko otsailaren 1etik urriaren 15era bitarte, eta eskaera egitean ordainduta egon beharko dute. Dagozkien faktura eta ordainagiria aurkeztu beharko dira.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzak emanen dira deialdi honetan onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideak aurkeztu ahala, eta, betiere, eskabideari erantzuteko aurrekontu-kontsignazioa egon bitartean.

Espedienteak eskaerak egoitza elektronikoan –horretarako gaituko den erregistro telematikoan– sartzen diren hurrenkeran izapidetuko dira. Eskaera egitean erantsi beharko dira egindako eta ordaindutako gastuen fakturak eta dagozkien egiaztagiriak.



BANAKAKO EBALUAZIOA

Horrela, behin egiaztatuta pertsona edo entitate eskatzaileak betekizunak betetzen dituela eta aurkeztutako gastuak deialdiaren 3. puntuan deskribatutako kontzeptuekin bat datozela, dirulaguntza ematearen gainean ebatziko da, eta dirulaguntza eman eta ordaintzeko ebazpena abiatuko.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 1.000.000 €

Atal honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa agortzen bada eta Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismoko Alorrean 2020. urterako onetsi eta ebatzitako beste dirulaguntza batzuk ez badira agortu, deialdi horietako soberako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira.

Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskaera deialdi honekin bat eta dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu duten eskatzaileak, baldin eta kreditua agortzean laguntzarik jaso gabe geldituak badira.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 11/43110/479000

3. Banakako gehiengo zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Soilik onartuko dira gutxienez 200 €-ko gastua (zergak kanpo) justifikatzen duten eskaerak (adierazitako gastu-kontzeptu batean edo bat baino gehiagotan).

Dirulaguntza justifikatutako gastuaren % 85 izanen da, eta 1.000 € gehienez ere (kasu bietan, zergak kanpo) dirulaguntza eskatzen duen establezimendu bakoitzerako, baldin eta deialdi honetako D.1 puntuan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

4. Hainbat urtetarako deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	1.000.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa:	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea oinarri den egoeran dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berriazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek dira onuradun izateko baldintzak:

Onuradunak alta hartuta egon beharko du, Iruñean, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, jarraian zerrendatzen diren epigraferen baten barruan, eta jarduera ekonomikoa betiere Iruñeko udal-mugartean dagoen lokal batean garatu beharko du.

JEZean alta eman izanaren aitortzean agertu behar dira jardueraren epigrafea eta jarduera horretara bideratutako lokalaren azalera.

JEZ Epigrafeak (7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, JEZaren tarifak eta jarraibideak)



Lehen sekzioa:

- o 64. taldea. Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza establezimendu iraunkorretan:
 - o 641. multzoa. Fruta-dendak
 - o 642. multzoa. Harategiak
 - o 643. multzoa. Arrandegiak
 - o 644. multzoa. Okindegiak, gozotegiak, izozki-dendak, gozoki-dendak
 - o 645. multzoa. Mota guztietako ardo eta edariak
 - o 646. multzoa. Tabakoa
 - o 647. multzoa. Elikagaiak eta edariak
- o 65. taldea. Elikagaiak ez diren produktu industrialen txikizkako merkataritza establezimendu iraunkorretan:
 - o 651. multzoa. Ehungintzako produktuak eta oinetakoak
 - o 652. multzoa. Farmaziak, drogeriak, lurrindegiak, belar-dendak
 - o 653. multzoa. Altzariak, gailu elektrikoak, etxetresna elektrikoak, burdindegia, tresneria, opariak, etxeko ekipamenduak.
 - o 656. multzoa. Erabilitako ondasunak
 - o 657. multzoa. Musika-instrumentuak
 - o 659. multzoa. Ordenagailuak, argazkigintza, liburu-dendak, bitxi-dendak, erloju-dendak, jostailuak, lore eta landareak.
- o 66. taldea. Merkataritza misto edo integratua:
 - o 661. multzoa. Azalera handietako merkataritza misto edo integratua: 661.3 epigrafea. Biltegi popularretako merkataritza.
- o 67. taldea. Elikadura-zerbitzua:
 - o 671. multzoa. Jatetxeak
 - o 672. multzoa. Kafetegiak
 - o 673. multzoa. Kafetegi eta tabernak
 - o 676. multzoa. Txokolate-dendak, izozki-dendak
- o 68. taldea. Ostatu emateko zerbitzua:
 - o 681. multzoa. Hotelak
 - o 682. multzoa. Hostal eta ostatu-etxeak
 - o 684. multzoa. Hotel-apartamentuak
 - o 685. multzoa. Hotelez kanpoko ostatuak
 - o 686. multzoa. Apartamentu pribatuen ustiatzea, agentzia edo enpresa antolatu bidez
- o 69. taldea. Konponketak:
 - o 691. multzoa. Etxeko tresna elektrikoak, ibilgailuen eta beste kontsumogai batzuen konponketa
- o 75. taldea. Garraioei atxikitako jarduerak:
 - o 755. multzoa. Bidaia-agentziak.
- o 83. taldea.- Higiezin jarduerak:
 - o 834. multzoa. Higiezin jabetzari eta jabetza industrialari dagozkien zerbitzuak.
- o 84. taldea.- Enpresei emandako zerbitzuak:
 - o 844. multzoa. Publizitateko, harreman publikoetako eta antzekoetako zerbitzuak.



BANAKAKO EBALUAZIOA

- o 85. taldea.- Ondasun higigarrien alokairua:
- o 854. multzoa. Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairua.

- o 97. taldea. Zerbitzu pertsonalak:
- o 971. multzoa. Ikuztegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
- o 972. multzoa. Ileapaindegiak eta estetika-zentroak
- o 973. multzoa. Argazki- eta fotokopia-zerbitzuak.

2. sekzioa

- o 836. multzoa. Fisioterapeutak
- o 838. multzoa. Podologoak
- o 839. multzoa. Masaje-emaileak eta dietistak
- o 887. multzoa. Makillatzaile eta estetizistak.

- Jardueraren titularrak autonomia izan beharko du, edo 70 langile baino gutxiago eta urtean 10 milioi euro baino gutxiagoko negozio-bolumena duen enpresa bat. Betekizuna izanen da, baita ere, enpresa elkartua edo partaidetzapeko enpresa ez izatea, halako moduan non enpresa txiki edo ertaina ez den beste enpresa batek ezin izanen baitu % 25 baino gehiagoko partaidetza eduki (ETE definiziorako, Europako Batzordeak 2003ko maiatzaren 6an mikroenpresa eta enpresa txiki zein ertainei buruz emandako Gomendioa aintzat hartuko da).

Jardunean diren zenbat lokal eduki titulartasunean eta horietarako eskaera bana aurkezten ahalko da, hau da, dirulaguntza lokalari eta hura toki seguru bihurtzeko behar diren gastuei loturik dago, zenbait lokalen titularra pertsona bera den gorabehera.

Titular batek nahi beste eskaera aurkezten ahalko ditu establezimendu bakoitzerako, establezimendu bakoitzerako emandako dirulaguntzaren zenbatekoak deialdi honetan ezarri den gehieneko kopurua, hau da, 1.000 euro (zergak kanpo), jo arte, eta betiere aurkeztutako eskaera bakoitzak gutxienez 200 euroko gastua (zergak kanpo) justifikatzen badu.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:



BANAKAKO EBALUAZIOA

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalak diploma edo bereizgarriren bat ematen ahalko die, nahi izanez gero, dirulaguntza honen onuradunei, lokalak Udalaren laguntza jaso izanaren frogagarri, eta establezimenduan ikusgai jarri beharko da. Halaber, Iruñeko Udalak bere webgunean eta egoki jotzen dituen beste komunikabide batzuetan argitaratzen ahalko du dirulaguntza honen onuradun izan diren establezimenduen izen komertzialen zerrenda.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak non aurkeztu:

Egoitza elektronikoa. Sistema telematiko bidez egindako eskaerak baino ez dira onartuko (ESKAERA) <https://sedeelectronica.pamplona.es/localesseguros>

2. Eskaerak aurkezteko epea: Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina eta 2020ko urriaren 31ra arte, betiere krediturik badago adierazitako aurrekontu-partidan.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak pertsona interesdunak edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsonak egin beharko ditu, egoitza elektronikoan. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordeztu erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, ez badira bete bost urte baino gehiago agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:



BANAKAKO EBALUAZIOA

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeakoak.
b) Eskabidea, egoitza elektronikoaren bidez.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, egoitza elektronikoan, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

d) Fakturak eta gainerako egiaztagiriko baliokideak, betiere trafiko juridikoan baliodunak direnak edo indar administratiboa dutenak, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatze aldera, eta, baita ere, egindako gastuen ordainagiriak.

Fakturak eta gainerako egiaztagiriko baliokideak ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

e) Emandako dirulaguntza zein banku-kontutan ordainduko den eta eskatzailea horren titularra dela egiaztatzeako agiri hauetako bat:

- JATORRIZKO agiria, "Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea" I. eranskinarekin bat

Edo, bestela,

-JATORRIZKO agiri elektronikoa, banku-entitateak emana (banku-entitateak elektronikoki sinatua).

f) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

☒ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Edo, bestela,

☒ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, egoitza elektronikoaren bidez, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu honetan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, ofizioz egiaztatuko da eskatzaileak egunean dituela hala tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak. Egiaztapen hori egin ahal izateko, eskatzaileak baimena eman beharko dio Iruñeko Udalari Zerga Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean kontsultatu dezan egunean dituela hala tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak.

g) Justifikazio-kontu erraztua, II. eranskineko ereduarekin bat.

G.4.d) puntuan diruz lagundutako gastuak egiaztatzeako aipatzen diren agiriak kopia arruntak izan daitezke. Hori horrela, telematikoki aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezartzen duenarekin bat.

h) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. ☐ BAI ☒ EZ

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENEN JAKINARAZPENAK:



BANAKAKO EBALUAZIOA

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) puntuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebatzi eta jakinarazteko epea: sei hilabete

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz lagundu ahalko dira: Deialdi honetako B letrako 3. puntuan zehaztutakoak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) puntuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Soilik onartuko dira eskaera egiten den unean jada eginda eta justifikatuta dauden gastuak aurkezten dituzten eskabideak.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: 2020ko otsailaren 1etik 2020ko urriaren 15era bitarte.



BANAKAKO EBALUAZIOA

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 100

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☐ BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: egindako eta justifikatutako gastuaren % 85 izanen da dirulaguntza.

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☒ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☐ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.



2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☒ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ

☒ Justifikazio-kontu erraztua: Egindako jarduketan justifikazio-memoria bat eta gastu zein inbertsioen zerrenda sailkatua aurkeztuko dira, bertan adierazita hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data, eta behar izatera, ordainketa-data. Gastu bera diruz lagundu duten bestelako diru-sarrerak edo dirulaguntzak ere zehaztuko dira, zenbatekoa eta jatorria adierazita, II. eranskineko eredu-agiriarekin bat.

Faktura bera onuradun beraren bi establezimendu desberdinetako gastuak justifikatzeko erabili behar denean, establezimendu bakoitzari dagokion ehunekoa adierazi beharko da. Halakoetan, establezimendu bakoitzari dagozkien ehunekoen baturak ezin izanen du % 100 baino gehiago izan.

☐ Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Eskaera egiteko unean.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☐ BAI ☒ EZ

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka,



BANAKAKO EBALUAZIOA

errekurtso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKAERA.**

☒ **II. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIO-KONTU ERRAZTUA.**

☐ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☐ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**